

ENRICO FERMI

Iñaki Azkune


Fisikari italiar hau Erroman jaio zen 1901.eko irailaren 29an. Pisako unibertsitatean bukatu zuen doktoregoa 1922. urtean, Benito Mussolini boterera heldu baino hilabete batzuk lehenago.

Harez gero bere ikerketak Alemanian egin zituen Max Born-en zuzendaritzapean, baina 1924. urtean Erromara itzuli eta 1926.ean Erromako unibertsitatean fisika-irakasle izendatu zuten.

Chadwick-ek 1932.ean neutroia aurkitu zuenez geroztik, Fermi erabat arduratu zen partikula azpiatomiko horretaz. Partikula neutroetan oso aditua zen eta ez da ahaztu behar Pauli-k postulatutakoari "neutrino" izena berak eman ziola.

Neutroia oso garrantzitsua zen, berari esker erreakzio nuklear mota asko egin zitekeelako. Elektrikoki kargarik ez zuelako, positiboki kargatutako nukleo atomikoak ez zuen aldarazten. Beraz partikula-azele-raztailerik ez zen behar neutroiari energia ematearren. Neutroiek izan ere, zenbat eta energia gutxiago eduki, hainbat eta efektu handiagoak eragiten zituzten.

Fermi konturatu zenez, erreakzio nuklearren hasieran neutroien efektua handiagoa zen ur- edo parafina-geruza zeharkarazten zitzaienean. Neutroi bat atomo baten nukleoak zurgatzen duenean, nukleo berriak noizbehinka beta partikula bat igortzen du eta pisu atomiko handiagoko hurrengo elementu bihurtzen da. Fermiri uranioa neutroiz bonbardatzea



Fisikako Nobel Saria eman zioten 1938. urtean, neutroi-bonbardaketaz eta neutroi termikoez egindako lanengatik.

bururatu zitzaion, sistema periodikoko hurrengo elementua lortzearren. Haren ustez X uranio izeneko elementu berria lortu zuen 1934.ean sistema hura aplikatuz.

Fermik neurri batean bakarrik zeukan arrazoi, bost urte geroago McMillanek frogatu zuenez. Hahn-ek arazoa ikertu zuenean, Fermik uste baino fenomeno garrantzitsuagoa zela konturatu zen. Hala ere, neutroi-bonbardaketaz eta batez ere neutroi termikoez

egindako lanengatik, 1938. urtean fisikako Nobel saria eman zioten, Meitner-ek hilabete batzuk geroago fisio nuklearraren sekretua argitu baino lehen.

Dena den, Fermi familiak Italian arazo handiak zituen. Fermi antifasista zen eta Nobel saria jasotzeko ez zuen uniforme faszistarik jantzi. Gainera emazte judua zeukan. Nobel saria jaso eta Stockholm-etik Fermi bere familiarekin Iparrameriketara joan zen betirako. 1945. urtean eman zioten iparramerikar hiritartasuna. Han fisio nuklearra ikertzen segitu zuen; katen erreakzioak ikertzen batez ere.

Bomba atomikoa produzitzeko Manhattan proiektua sortu zenean, Fermi zuzendari izendatu zuten. Arrakasta izan zuen bere pila atomikoak eta 1942. urteko abenduaren 2an Chicagoko unibertsitatean katen erreakzioa mantendu zuenean, Aro Atomikoari hasiera eman zitzaion.

Handik bi urte t'erdira, fisio-erreakzioez baliatzen ziren bomba atomikoak bota zituzten Bigarren Mundu-Gerran, Japoniako Hiroshima eta Nagasaki hiriak deuseztuz.

1945. urtean, Fermi Ikerketa Nuklearreko Institutuan hasi zen lanean eta lehen bomba atomikoa egiten parte hartu bazuen ere, fusiozko H bomba atomikoa egite- ren kontrakoa zen, Oppenheimer-en antzera.

1954. urtean minbiziak jota hil zen, eta 100 zenbaki atomikoa

Zientzilarien ildotik

duen elementu kimikoari "fermio"
izena eman zioten, fisikari italia-
rraren omenetan.